

Ipuin-erretratuak

www.berria.eus

Eskuarki, Ingeborg Bachmann gehiago jo ohi dugu poetatzat narratzailetzat baino, gurean behintzat hala ezagutzen baikenuen lehendik ere, Munduko Poesia Kaietan Nagore Tolosak itzulitako antologiarekin. Oraingoan, baina, narratzaile gisa etorri zaigu, Literatura Unibertsala bilduman plazaratu den *Aldibereko* ipuin-sortan, Idoia Santamariaren itzulpenean. Eta argi dago Bachmann narratzailea ez dela Bachmann poetaren itzalpean geratzen; izan ere, ausartuko nintzateke esatera hauxe dugula, zalantzarik gabe, 2019an euskaraz kaleratutako narrazio-lanik bikainenetako bat.

Bikaintasun hori narrazio-ahotsaren tinkotasunari zor zaio neurri handi batean, ez baitira sarri aurkitzen narratzailea hain landua duten kontakizunak. *Aldibereko* osatzen duten bost ipuinetan emakume bana dugu protagonista, eta bakoitzean narratzaileak kasik manta batek bezala estaltzen du protagonista bakoitza. Pertsonaien gogoetak, izaera, jokaera, denak daude narratzailearen ahotsean, ez islatuta, ezpada eraikita; kontraerak berak taxutzen digu pertsonaia bakoitza, ikuspuntu batetik bestera eta denboran atzera eta aurrera jauzika, eta kontakizunaren amaierara iristerako oihartzaren gara narratzailearen ahotsa ez dela manta bat, ezpada pertsonaien lehengai printzipala, osatu dituen buztina bera. Haatik, pertsonaiak lantze horrek ez du esan nahi istorioen kontaketa bigarren mailan geratzen denik, hor ere kontalari-teknika ezin finagoa baitauka Bachmannek, batik bat irakurleak jasotzen duen informazioaren dosifikazioari eta fokalizazioari dagokionez: eszenaratzerik xumeena eta xehetasunik ñimiñoena, guztiak ditu zorrotz pentsatuak eta muturreraino neurtuak.

Lehen ipuina eta azkena gainerakoetatik nabarmentzen dira; lehena, zailtasunagatik, eta azkena, luzeragatik. Halere, iruditzen zait Bachmannen ipuingile-xarma erdiko hiruretan loratzen dela bere

ederrenean; lehenbiziko ipuina, adibidez, sekulako lorpen teknikoa da, baina ipuin gisa konplexua, eta, zailtasunean iluna izan gabe ere, besteak baino gozakitzailea suertu dakioke irakurleari. Hurrengo ipuinak, berriz, zelaituagoak dira, eta klaruagoak bertako emakumeen erretratuak. Liburu honetan bost erretratu taxutzen baitzaizkigu, bost feminitate-eredu, nolabait esateko, artez edo moldez gizonen baten inguruan garatzen direnak, eta zorrotz islatzen dituztenak ez bakarrik Bachmanni seinatu izan zaizkion gai orokorrak (komunikazio-falta, giza harremanen noraeza, hizkuntza-kezkak...), baizik baita tentsio patriarkalen forma desberdinak ere, feminitate distorsionatuon iturburu beti: banitatea, itxurakeria, muturreko segurtasun-falta, autoengainua... Horiek guztiak haragitzen dituzte emakumeok, batik bat erdiko hiru ipuinetako protagonistek.

Literatura-lan peto-petoa eta punta-puntakoa dugu Bachmannen ipuin-sorta hau, eta Santamariaren itzulpen-lanak ere ez du meriturik falta, batez ere lehen ipuineko anabasa txiki-handia eta hizkuntza-nahastea bezatzeko lan gaitzean. Berez gaitza den jarduna are gaitzagoa baita hizkuntza hemen bezain funtsezko elementu duten literatura-lanetan. Bachmannen hitzetan, zeinak Santamariak baitakartza hitzaurrera, «idazle batek darabilen hizkuntzak eusten ez badio, edukiak ere ez dio eusten». Eta gurean, hizkuntzak inon eusten badio, itzulpenean, itzulpen hauetan eusten dio.

